



BARREN

TOKIKOM

Arkuarekin Zarta



24 orduko asistentzia abisu guztientzat 

Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**

Euskarazko zerbitzua



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerik ostiratera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Irakpandegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.



onyon
huerto creativo
ARKITEKTURA

**ETXEBIZITZEN ERABERRITZE
BEREZIETAN ADITUAK**

ELGOIBAR
ION ZUBIAURRE ROS / ARKITEKTOA
HUGO PRADES CLAESSENS / ARKITEKTOA
665720911
onyon@onyon.org
www.onyon.org

Barren 25 urte

Maria Garciaren "altxorra"

Badakigu herritarrok BARREN estimuan daukazuela, sarri agertzen diguzuelako zuen babesa eta esker-ona, izan txalotan nahiz kritika formatoan, baina ez genekiena zen bazela gutxienez bat BARRENEN zenbaki guztiak urrea balira bezala gorde dituen urte hauetan guztietan. Maria Garcia da gaurko gure protagonista. Ehunka zenbaki pilatu ditu urteotan eta erredakzioan bertan adinako hemeroteca osatu du etxean. Duela gutxi ekarri zizkigun haietako zenbaki asko, gehiagorentzako lekurik gabe gelditu zelako. Gaur, esker onez, berari eskaini nahi izan diogu atal hau.

Hogeita bost urteko historia jaso du BARRENek, eta harrokeriarik gabe, baina harrotasunez esan dezakegu Elgoibarren eta Mendaron gertatu denaren hemeroteca handiena osatu dugula. Halaxe uste du Maria Garcia elgoibartarrak ere. "Herriko gehienok agertuko ginen noizbait BARRENen eta hori da gehien gustatzen zaidana. Herrian sortzen denaren berri ematen digu, eta herritarrek egiten dituzten protagonistak. Gure bueltakoek bizitako esperientzien berri eman digu, eta hori oso ederra da. Herri gintzan egindako lan hori eskertu nahi diot BARRENi. Aldizkari osoa begiratzen dut, baina bada atal bat bereziki gustatzen zaidana: Erretratu Zaharrarena", azaldu du Garciak. Estimutan dauka proiektua bera eta horren adibide da duela gutxi arte aldizkariaren zenbaki guztiak gorde izan dituela etxean, 0 aletik atzerako denak.

Ez da hilabete asko haren deia jaso genuela erre-dakzioan, esanez altxor bat zeukala etxean, baina lekurik gabe gelditzen ari zela eta pena handia ematen bazion ere, altxor hura dohaintzan eman nahi zuela. "Izugarrizko pena eman zidan BARREN guzti haiek ematea, baina ez neukan gehiagorentzako lekurik. Gaur, oraindik penatan egoten naiz batzuetan. Orain ere ale mordoska bat gordeta dauzkat, 170 bat edo. 0 alea, azalean Olentzeroren irudia zuen hura, eta etxeok agertzen garen BARRENak mimo handiz gordetzen ditut. Azalean jartzen diet, gutako zein agertu den non, eta halaxe artxibatzen ditut. Gainerako guztiak zuei eman nizkizuen". 700 aletik gora ekarri zituen BARRENera Garciak.

Gaur, BARRENen artxibo osoarekin egin diogu argazkia. Argazkirako 0 zenbakia eskatu du propio. "Izugarrizko ilusioa egingo lidake lehenengo zenbakiarekin agertzea. Abenduaren 24an argitaratu zenuen, 1992an, eta urte batzuk gero-

ago ama izan nintzen ni egun horretan. Abenduaren 24 batez jaio zen nire seme zaharrena, Iban. Hor beste arrazoi bat 0 zenbakia urrea balitz bezala gordetzeko", zehaztu du. Bera ere izan da protagonista BARRENen eta ez dauka ahazteko. "Oker handirik gabe esango nizuke zein zenbakitan agertu nintzen aurrenekoz. Jasone Osorok elkarrizketatu nintzen lehenengoz, eta geroztik birritan agertu naiz idatzi luzeetan: senarrarekin batera Santiago Bidea egin nuenean eta 2013an, Korrika ekimenak euskara ikasten ari ginenak omendu gintuenean".

Azalean agertu zen orduan, AEKko ikasle zen Pilar Herre-rori eskua emanda.

"Baina agertu gehiagotan agertu gara gu. Jaietako argazkietan, danborradakoe-tan... eta denak dauzkat gordeta, jakina. Zenbaki

horiek ez dauzkat inori emateko, gainera. Altxorra dira niretzat."



HARRI & IRRI

Giroa inauterietan



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhua Andonegi **KAZETARIAK** Ainhua Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhua Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpil-laga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreaz-aldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefona jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MENDAROKO SANTA ESKEA

Sendi Anaitasuneko zuzendaritza batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, otsailaren 3an, santa eskean kantu kantari aritu ziren bertolari, trikitilari eta lagun guztiei. Baita, urtero bezala Mendaroko herritarrei ere, erakutsi zuten borondate onagatik. 2.778 euro batu zituzten santa eskekoek eta gastuak ordaindu ostean gelditu zitzaizen dirua Sendi Anaitasunari eman zioten. Jarrai dezazuela urte askoan baserri eta kaleak alaitzen. Aupa zuek!

Sendi Anaitasuna

► ESKERRIK ASKO

Eskerrak eman nahi dizkiegu Mendebaldeko Saharako errefuxiatuen alde egindako janari bilketan lagundu diguten elgoibartarrei, BM eta Eroski (Sta. Ana, B. Ezenarro) supermerkatuei, IMH eta Herri Eskola ikastetxeei, Etxeberria Farmazia eta BARREN aldizkariari.

Bestalde, jakinarazi, Eibarren, Elgoibarren, Mendaron eta Deban egindako bilketetan 4.000 kilo janari eta helduentzako pardelak batzea lortu dugula. Mila esker.

Eibar-Sahara Elkartea

► ARROPA GARBITZEA

Santa Klara Elkarteko ahizpak (monjak) gara. Ez dakit dakizuen komentua apirilean utziko dugula, eta horregatik, jakinarazi nahi dugu, otsailaren azkenean utziko diogula arropa garbiketarako egiteari.

Bestalde, edredoi, manta eta mahai gainera bere ezpain-zapiekin, garbitu, lisatu edo plantxatuta ere dezente daukagu, beren jabeek jaso gabe. Horiei esan nahi diegu hamabost egun barru jasotzen ez badituzte, Karitasera bidaliko ditugula.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizuegu Elgoibarko familia eta lagunei, hainbat urtetan eman diguzuen lanagatik.

Moja Klaratarrak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketara egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan dotore
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailein kalea, 9, 1. ez. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

ECO EIBAR 4D
imagen prenatal
R.P.S. 44340878y
688 800 800
Isasi kalea, 17 - EIBAR
4D ekografietan espezialistak

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 830

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&mas
Fisioterapia aurreratu eta Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com
RPS 112/18

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Erperantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Merezitako atsedena eman diete 36ko Gerran hildako beste 24 laguni

Memoriarako eguna izan zen joan zen barixakua Elgoibarrren, 36ko Gerran Errepublikaren alde duintasunez borrokatu zutenei duintasuna itzultzeko eguna. Izan ere, gerran hildako 24 lagunen gorpuak hobiratu zituzten Olasoko hilerrian, Duintasunaren Kolunbarioan. Horietako hiru identifikatuak: Ramon Portilla CNTkoa; Millan Zabala, Donostiako Udaleko Gauzainen Kidegoko langilea eta Nicolas Obregon Eusko Gudarosteko CNTren Sacco Wannetti batailoiko kaboa.

Gogorak antolatu zuen ekitaldia Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubi-deen Institutuak, eta hango zuzendari Aintzane Ezenarrok hasi zuen ekitaldia. Harekin batera ziren, Aranzadi Zientzia Elkarteko Paco Etxebarria antropologoa, gorpuak topatu dituzten zortzi udalerrietako ordezkariak, Memoria historikoaren aldeko taldeetakoak -artean Elgoibar 1936 taldekoak eta Ahaztuen Oroimenakoak-, lekukotzak eman dituzten hainbat lagun, Ane Beitia Elgoibarko alkatea eta losu Arraiz (EAJ), Blanca Larrañaga (EAJ) eta Josu Luis Ibartzabal (EHBildu) zinegotzia eta beste hainbat agintari eta aurpegi ezagun ere bai.

Aintzane Ezenarrok nabarmendu zuen ziklo bat ixten zela ostiraleko ekitaldiarekin. "Ahanzturatik atera eta merezi duten lekua emango diegu". Haritz Euskal Dantzari Taldekoek egin zuten ohorezko agurra ondoren eta banan-banan hobiratu zituzten 24 lagunen gorpuzkinak. CNTko Ramon Portillaren senideek, CNTko bi ordezkariak eta gorpuak agertu ziren udalerrietako ordezkariak izan zuten arduraren hori. Ekitaldia, berriz, Kolunbarioaren aurrean dagoen Duintasuna eskulturaren aurrean egindako lore-eskaintza batekin amaitu zuten.

Lekukotzen garrantzia

Santi eta Inazio Retolaza anaia elgoibartarrek ere parte hartu zuten ekitaldian. Zelaietaburun (Etxebarria),



Goian, agintariak eta gorpuak hobiratzeko parte hartu zutenak. Behean, Retolaza anaia, Zelaietaburun agertutako gazte baten gorpuzkinak hobira daramatzatela.

Elgoibarko lurretatik metro gutxira topatu zituzten hiru gorpuetako baten gorpuzkinak hobiratu zituzten. Santi eta Inazio Retolaza aita, Mariano Retolaza (1898-1970), elektrikaria zen eta tropak Elgoibarrera sartu zirenean, frankistek euren alde lan egitera behartu zuten. Frontetik botatzen zituzten tiroek etendako argindar-kableak konpontzen ibili zen, fronteak iraun zuen zazpi hilabetez.

Ordurako, haren anaia bat, Alejandro Retolaza, alde egina zen herritik, faxisten beldur. Matxinatuen aurrera egitea eragozteko Ormaiztegin trenbide-zubia eraitsi zutenen taldekoa zen Alejandro eta hilko zuten beldur zen. Bizkai aldera alde egina zen Alejandro beraz, Jose Mariano anaia tropa frankistek hil zituzten hainbat

lagunen berri izan zuenean. Aiastian entzun zien frankistek eurei, eta entzun eta bat, eta Urkaregiko gainerantz abiatu zen, hildako haietako bat anaia izan zezakeelakoan. Hiru mutil gazte topatu zituen hilotz eta urteetan isilik gorde bazuen ere, 1955 inguruan semeek kontatu zien, Iruituritik: "Han, harkaitz haiek dauden tokian, hiru hildako ikusi nituen (...). Inazio seme gazteenak makina bat aldiz entzuzion kontu hori eta Zirardamendin guda-riak hobitik ateratzen hasi zirenean Elgoibar 1936 taldekoekin jarri zen harremanetan. Lekukotza hari esker eta Soarte baserriko Jose Mari eta Pilar San Martin neba-arrebek bere garaian emandako lekukotzei esker lekutu zituzten Ahaztuen Oroimena elkartekoek eta lurpetik atera Aranzadikoek.

Musurik originalena sarituko dute Elgoibarko hainbat ostalarik

S an Balentin, maiteminduen eguna, aitzaki hartuta, musurik originalena saritzeko lehiaketa antolatu dute Elgoibarko hainbat ostalarik. Musuak ematen ari diren bitartean argazkia atera behar dute parte hartu nahi dutenek Elgoibarko tabernetan eta otsailaren 18ra arteko astia izango dute horretarako. Ideiaren sustatzaile Carlos Lahozen esanetan honako tabernak batu dira ekimenera: kiroldegia, Marem, Bichito, Pilon, Maala, Urkiola, Gautxo, Gabi, Mahats, Ametsa, Usoa, PSOE, Asgi, Salento eta Viento Sur.

Taberna horietan photocall bana egongo da, eta irudi baten aurrean atera behar da musuaren argazkia. "Era guztietako musuak izan daitezke. Bikoteen artekoak, txakurrari emanikoa, lagunei... eta ez dauka zertan ezpainetan izan behar, lagun buru-soilari buruan emaniko musuak ere balio du. Originala eta artistikoa izatea da balio duena", azaldu du Lahozen. Musuaren argazkia Facebook edo Instagram sare sozialetara igo beharko dute lehiaketan parte hartu nahi dutenek, #besodevino #miravientosdistributions traolekin.

Bi sari banatuko dituzte antolatzaileek. Epaimahaiak aukeratzen duen argazkiaren egileak jasoko du sarietariko bat: Zaragozako lau izarretako hotel batean gau bateko egonaldia bi lagunentzako, eta Grandes Vinos en Cariñena ardandegira bisita. Parte hartzaileen artean egingo duten zozketako irabazleak ere sari bera jasoko du.

Oihartzun zabala izan zuen Elgoibar Erotikoa ekimenaren bultzatzaile nagusietako bat izan zen Lahozen. Hiru urtean egin zuten taberna giroa sustatzeko ekimena eta asmo horixe dute oraingo lehiaketa honekin ere.

Lur planeta zaintzeko egitasmoaren barruan geldialdia egin dute Elgoibarren Kopenhagera bidean



Oviedotik Danimarkako hiriburura, Kopenhagera, bizikletaz bidaiatzen ari dira David Lago eta Jessica Martinez asturiarrak, eta zapatuan, Kalegoen plazatik pasatu ziren. Lur planeta zaintzeko beharraz kontzientziatu eta klima aldaketaren ondorio kaltegarriez ohartarazi nahi dute jendea 2.500 kilometroko bidaiarekin. Gizakion aztarna ekologikoa nola gutxitu azaltzen duen liburu bat itzultzeko eta argitaratzeko baliatuko dute egitasmoan batzen duten dirua.

Atxutxiamaiak eta Ludotekaren udaberriko oporraldirako izen-ematea zabalik

Hainbat jarduera antolatu dituzte Atxutxiamaiak eta Ludotekaren udaberriko oporraldirako. Izen-emateak otsailaren 19tik martxoaren 5era arte egin beharko dira, eta plazak mugatuak dira. Informazioa jaso eta izena emateko Ludotekara, Elgoibarko Izarrra edo www.elgoibarkoizarra.eus atarira jo daiteke.

Apariketan taldekoentzat martxoaren 26an jolas librea izango da, eta gurasoentzako Txusma Azkonarekin horren inguruko tailerra, 16:00etatik 19:30era Kultur Etxeko Sotoan. Martxoaren 28an ere izango dute jolas librean aritzeko aukera 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era, Sotoan, eta jolas librea naturan, 16:00etatik 19:00etara.

Firin-Faraneok martxoaren 28an *Masterchef* eta bazkaria egingo dituzte Ludotekan 11:00etatik 16:00etara. Apirilaren 5ean, berriz, Albaolara eta Pasaiara joango dira egunpasa. Abixadaneok Firin-Faraneoen ekintzez gain, martxoaren 26tik 27rako gaua Orion pasatuko dute.

Aldenik-Aldeneok gaur, barixakua, 17:00etan, batzara egingo dute Ludotekan martxotik apirilera bitarteko eskaintza erabakitzeke. Martxoaren 24tik 27ra Zarautzen egonaldia egingo dute.

Apariketan, Firin-Faran eta Abixadaneok txokoak izango dituzte 9:00etatik 13:00etara. Lehenengo txandan martxoaren 26tik 28ra eta bigarrenetan apirilaren 3tik 6ra

Kaleko ekintzarik ere ez da faltako: martxoaren 27an *Kalean otso, etxean uso* ikuskizuna eta apirilaren 6an jolasak, tailerrak....



INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideo eta argazki gehiago: www.barren.eus









“Liburutegia izatea oinarrizkoa da herri batentzat eta denok zaindu behar dugu”

Josu Bedialauneta eta Oihana Tarragual LIBURUZAINAK

30 urtez izan da Mendaroko liburutegiko liburuzaina Josu Bedialauneta. Iragarki baten bidez jakin zuen lanpostua irtefekoa zela eta ez zuen zalantzarik egin. Azpilgoetako Kultur Etxeko sotoan egin zituen hamabost bat urte liburuzain, eta geroztikoak, udaletxean, liburutegi berrian. Iazko ikasturtean, baina, laga egin behar izan zuen, eta Oihana Tarragual mendaroarrak bete du haren lekua, aldi baterako.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Zer oroitzapen duzu hasierako urte haietaz, Josu?

Gogoratzen dut 1987an irten zela lanpostua eta zazpi bat lagun aurkeztu ginenela. Neu aukeratu ninduten, eta bi orduko lanaldiarekin hasi nintzen. Azpilgoetako Kultur Etxeko sotoan zegoen orduan liburutegia, eta Jaurilaritzak liburutegi guztiei doan ematen zizkien liburuekin abiatu ginen. Geroago, aldizkari batzuk erosten-eta hasi nintzen, Margarinean. Sailkatzea dena eskuz egiten genuen. Liburuak sailkatu eta liburu bakoitzeko lau bat fitxa osatzen nituen, dena idatz-makina bidez, jakina, orduan ez zegoelako Internetik. Denborarekin lortu genuen aurrekontutxo bat eta hasi nintzen liburu banakak erosten, neure gustuen eta herritarren eskakizunen arabera. Neuk aukeratzeko erosi beharrekoak, orduan harremanik ere ez geneukalako inorekin, ezta Kultura zinegotziarekin ere. Hamabost bat urtean egon ginen Azpilgoetako lokal hartan. Udaletxera noiz etorri ginen ere ez dut gogoratzen garbi, baina go-goan daukat Juanjo Goikoetxeak Mendaroko kirolariei buruzko liburua eta *Miscelánias de Mendaro* liburuxken aurkezpena hemen egin zuela, eta liburuak 2002koak dira.



◆ Zein zen erabiltzailearen profila lehen, eta zein da orain?

Josu: Gehienbat umeak ziren lehen, eta hala dira orain ere. Lanak egitera etortzen ziren lehen liburutegira, entziklopedietan eta liburu espezializatueta eta kontsultak egitera, orduan ez zegoelako Internetik etxeetan. Eta gure lana haiei liburu egokiak bilatzen laguntzea izaten zen gehienbat. Pazientzia handia izatea ere eskatzen zuen liburuzain izateak, bazirelako bazterrak nahastera etortzen ziren umeak ere. Interruptorea kanpoan zegoen

eta zenbat bider ez ote ninduten iluntzeetan ilunpetan laga!

Eta orain ere gehienbat umeak etortzen dira hona. Heldu banakaren bat ere bistatzen da tarteka, nobela salduren bat edo egunkaria irakurtzera, baina gehienbat eskola-umeak dira. Orain, Internetera sarbidea duten hiru ordenagailu ere baditugu eta horretxek du estimazio handiena. Uste dugun arren gaur egun Internet etxe guztietan dagoela eta jakin arren gaztetxo gehienek sakelako telefonoan ere badutela, hona jende asko etortzen da sarean

ibiltzera. Eta liburuzainaren lana ume horiek zaintzea ere bihurtu da, hemen ez da goelako filtrorik, eta konturatzeko, behar ez den lekuetan edo behintzat euren adinaren egokiak ez diren orrialdeetan harrrapatzen ditugulako.

♦ **Bazterretik herrigunera aldatu zuten gero liburutegia. Zer izan zen aldaketa hura zuretzat?**

Josu: Txiripaz izan zen hori ere. Sekulako udaletxea egin zuten, handiegia herri txiki baterako, eta areto asko hutsik zeuden. Orduan, zorionez, norbaiti bururatu zitzaion liburutegiak hemen behar zuela. Beste modutan gaude hemen! Lokala ez da hain handia, baina bai Azpilgoetan geneukana baino handiagoa, eta irisgarritasuna ere askoz hobea da. Pertsona hari esker beraz, gaur liburutegia herrigunearan daukagu, liburutegi batek merezi duen lekuan. Jendea guk nahi beste etortzen den edo ez beste kontu bat da, baina behintzat mendaroarrek eskura dute liburutegia; eskura kultura. Nik garbi daukat liburutegi bat izatea oinarri-oinarrizkoa dela herri batentzat eta denok zaindu eta babestu behar dugun zerbait dela.

♦ **Zer da orduan gehien eskatzen zutena?**

Josu: Kontsulta liburuak, baina erotismoak ere tirada handia zeukan. Beste garai bat zen. HAAsiberritan, sexualitateari buruzko liburuak goiko apaletan jarritzen genituen, umeek har ez zitzaizten.

♦ **Zer da egin nahiko zenukeena eta egin ezin izan duzuna?**

Josu: Den herrirako eta erabiltzen denarako liburutegi nahikoa handia dauka Mendarok. 2.000 bat biztanleko herria da, eta 10.000 bat liburu daukagu liburutegian. Baina liburutegia baino gehiago hau irakurketarako gela bat dela esango nuke eta ez dituela betetzen beharko lituzkeen baldintza guztiak. Badakit ezin gara beste batzuekin konparatzen hasi, baina eskatzen hasita liburutegia handitzea, nagusientzako eta umeentzako gelak bereiztea eta soinu gabetzea, eta ordutegia zabaltzea eskatuko nuke; jendea etorri nahiz ez etorri, goizez ere zabaltzea. Baina aitortzen dut eskaria txikia

dela. Bi ordu t'erdiz egoten da zabalik, baina bakar-bakarrik ere sarri egon naiz ni hemen.

♦ **Irakurzaletasunaren gaineko kezkek indar handia hartu du. Hona etortzen diren gehienak gaztetxoak izanda, zuk zeuk zer ikusten duzu?**

Josu: Esku bateko atzamarrez konta daitezkeela euren gogoz irakurtzera datozenak. Irakurzaletasuna etxetik sustatu behar den zerbait da, baina jakina, errazagoa zaigu denori ere telebista piztu eta hari begira jartzea. Baina garbi izan gurasoek irakurtzen ez badute, ondorengoek nekez hartuko dutela gogoz liburu bat. Eta harrigarria ematen du, baina badira liburu bakar bat ere ez duten etxeak! Eskolan behartuko dituzte gaztetxoak hau edo beste irakurtzera eta derrigorrekin lotuko dute irakurketa. Aurrekontu txiki batekin, hona ere ekarri izan ditugu Pello Añorga, Ines Bengoa eta izen handiko beste zenbait haurren interesak pizteko, baina zaila da. Eta hori irakurri nahi duenak ez duela sekula gaur besteko erraztasunik izan irakurgaiak eskuratzeke.

♦ **30 urte. Erraz esaten da. Zer eman dizu zuri liburuzain izateak?**

Josu: Satisfazio handia. Gustura egon naiz, baina irakaskuntza munduan sartuta nago eta gaur egun ezin dira bi lanpostu publiko eduki. Asko disfrutatzen dut irakurtzen eta liburu bera, formatoa, itzel gustatzen zait. Liburutegietara joan zalea ere beti izan naiz.

♦ **Telebista munduan ezagutu zaitugu zu, Oihana, kazetari lanetan, eta orain, liburuzain.**

Oihana: Oporretan nengoela izan nuen lanpostu honen berri eta langabezian nengoenez eta etxetik gertu lan egiteko aukera sortzen zitzaidanez aurkeztu egin nintzen. ETBn egin izan ditut artxibo eta dokumentazio lanak aurrez, baina ez dute zerikusirik honekin. Dena den horrek ez ninduen kezkatzen, lehen ere mila langintzatan aritzea tokatu izan zaidalako. Eta halae aurkeztu nintzen, eta aukeratu egin ninduten. Berehala jarri nintzen Josurekin harremanetan eta esker ona agertu nahi diot, asko irakatsi didalako. Espa-

zioa bera gustatzen zait eta liburu artean ibiltze hau ere bai, beti izan naizelako oso liburuzalea. Hori bai, orain neu naiz aldi baterako, baina niretzat Mendaron Josu izango da beti liburuzaina

♦ **Zerk harritu zaitu gehien?**

Ordenagailuak daukan estimazioa eta jende askok oraindik ez dakiela liburutegia udaletxean dagoenik ere.

♦ **Zer egin nahiko zenuke?**

Ideiak sortzen zaizkit, baina egia da bi ordu t'erdik ez dutela askorako ematen. Jendea harrera egin, liburuak katalogatu, maileguan emandakoak jasotako, erabiltzaileek ateratako liburu guztiak euren lekuetan sartu, ipuin-kontalariren bat lotu... Niretzat garrantzitsuen jendeak liburutegia ezagutzea da, eta zentzu horretan ari dira gauza batzuk sortzen. Tratu Onen Aldeko Taldekoek irakurketa-saiok egiten hasi dira hemen eta Gaztelekukoak ere etorri izan dira literatura tailerren bat egitera. Iruditzen zait bide hori landu behar dela.

♦ **Zenbat erabiltzaile ditu Mendaroko liburutegiak gaur?**

Oihana: 440

♦ **Zein da libururik irakurriena?**

Oihana: Dolores Redondoren *El guardián invisible* izan da 2017ko irakurriena, eta euskarazkoen artean, Karmele Jaioren *Ez naiz ni*.

♦ **Ez daramazu denbora asko, baina bixikeriaren bat ba al duzu kontatzeko?**

Oihana: Anekdotak bat, bai. Orain gutxi etorri zitzaidan emakume musikari bat gitarrari buruzko eskuliburu bat eskatzen: *Manual de guitarra*. Bere senarra ere musikaria da eta liburutegia Azpilgoetan zegoenean irakurri ei zuen liburu hori eta izugarri gustatu itxuraz. Eta topatu genuen bilatzen zuena, eraman zion senarrari etxera eta itxuraz sekulako ilusioa egin. Berri-berri ei zegoen, gainera, liburuak, esku askotatik pasatu gabe. Kontrara, badago beste bat gasta-gasta eginda: Zinemari buruzko bilduma bateko zazpigarren liburukia da, zinema erotikoari buruzkoa. Orrialdeak ere horituta eta kirbilduta ditu.



Non begia, han gezia

Arku-tiroan hasi nahi duen edonorentzako zabalik du atea Elgoibarko Zarta arkulari taldeak. Pedro Mugurutzako lokal batean entrenatzen dute martitzenetan eta eguenetan, 18:00etan. Entrenatzeko txoko egokiak aurkitzea da, hain justu ere, Euskal Herrian kirol jarduera honetan aritzen diren talde askorentzako zailtasunik handiena. Halaxe da Elgoibarren ere. Dituzten beharrez eta euren zaletasunaz berba egin dugu taldekideekin.

- ASIER ORBEA -



Zartako kideak herritar batek lagatako lokalean entrenatzen dira, baina jabeak salgai dauka eta edozein unetan alde egin beharko duten zalantza hori badute. "Gertatu izan zaigu inmobiliariakoa etortzea lokala ikusi nahi duten bezeroekin, entrenatzen ari garen bitartean. Ezusteko ederra hartzen dute gu hemen ikusita, gure arku eta geziekin animalia itxurako itaiei tirakala!", dio Jaime Martinezek. Kirol ezaguna eta zabaldua ez izatearen desabantailetakoa bat da. "Entrenatzeko bi gune izatea izango litzateke perfektua, aterpean bata eta aire librean bestea. Urteak dira Udalarari eskaera hori egin geniola. 2004. urterako agindu ziguten leku bat kiroldegian egin behar zituzten egokitza-pen batzuren aitzakian, baina ez zituzten lan horiek egin.

Gaztetxean ere leku bat eskaini ziguten arren, aukera baztertu genuen egokitza-pen asko behar zituelako". Eskatzen dutena ez dela gehiegi dio Javier Varonak. "Elgoibarren izena zabaltzen dugu han eta hemen. Elgoibarko Udalarari futbolaz eta eskubaloiaz

aparte kirol txiki edo zale gutxiago dituztenak ere gogoan izateko eskatu nahi diogu. Elgoibarko kirol federatua anaia itsusia gara". Baldintza perfektuetan egon ez arren, gogoz eta irudimenaz egiten diete aurre gabeziei. "Gehienez 24 metrora jaurti ditzakegu geziak gauden lokaleko neurriak direnak direlako, eta txapelketetan 30 metrora egoten dira ituak. Falta zaizkigun sei metroak buruarekin irudikatu behar ditugu", azaldu du irribarre batekin Hugo Sierrak, Zartara batu den azkenetariko kideak. Zartakoak kexu dira baita ere argindarraren faktura ordaintzera bideratu behar dutelako kideek ordaintzen duten kuota-ren zati handi bat. "Argindarraren faktura garestia da, neguan batik bat. 13.000 watio daude hemen eta hileko 140 euro inguru ordaindu behar izaten ditugu. Gainera, lokala pribatua izatean, Udalak ezin gaitu diruz lagundu". Nahiago lukete diru hori beste gauza batzuetarako erabili, hasiebertzako materiala erosteko, esaterako. Izan ere, arku-tiroan



hasi edo probatu nahi dutenei beharrezko materiala doan lagatzen diete Zartakoek, gustatzen zaien edo ez erabakitzen duten arte. Kirol honetan hasteko beharrezko materiala 250 bat euroan lor daitekeela diote. "Nahikoa dira dozena bat gezi, pare bat urterako balioko digun arku bat, brida bat, geziak gordetzeko... Horixe da gutxienekoa", dio Sierrak. Materialak gogorak direla azaldu du, "ez dira gastatzen; kapritxo aldutzen ditugu". Betiere, demaseko punteria erakutsi eta "Robin Hoodak" bata bestearen atzetik egin ezean. Aurrez jaurtitako gezia bete-betean jotzeari deitzen diote hala, Sherwoodeko gezilariari buruzko pelikuletako batek ezagun egin zuen eszena gogoan. "Estreinako aldia grazia egiten du, eta harro sentiarazten zaitu, baina bigarregotik aurrera hasten zara akordatzen gezi bakoitzak hamar euro balio dituela, erdian jotako geziak zaborrontzira botatzen dituelako". Beste kirol batzuekin alderatuta kirol merkea dela uste dute. Hasieran inbertsio txiki bat egin eta mantenu gutxi behar duelako. Gainera, badago materiala norberak sortzeko aukera ere, trebetasuna izanez gero. Hugo Sierrak larrua erosi eta berak egiten ditu eskularruak, bridak, sokentzako euskarriak e.a. Beste kontu bat da Basoko 3D modalitateko zirkuitu bat osatzeko behar den aurrekontua. Animalia itxurako ituak erabiltzen dira modalitate horretan eta 25 bat figura behar dira zirkuitu bat osatzeko. "60 eurotik gora balio ditu figura bakoitzak eta saiakera bat edo beste egin dugun arren, ez zaigu aurrekontua iristen eta ibilbidea non jarri ere ez daukagu oraindik".

TXAPELDUNAK IRAKASLE

Zartak bazkide gutxi ditu, baina adin guztietakoak, 9 urtetik hasi eta 60 urtera bitartekoak. "Adina eta indarra ez dira oztopo. Beti dago oreka bilatzea, norbere indarra eta arku mota desberdinak uztartuz". Ateak irekitzeko jardunaldiak ere antolatzen dituzte jendeak arku-tiroa ezagutu dezan. Emakumeak ere animatu nahi dituzte. "Neska bat aritu zen gurekin bizpahiru hilabetez, baina laga egin zuen. Generoa nabarmentzen ez den kirol bakarretakoa da, eta txapelketetan kategoria bakarra egoteko eskaera ere egon badaude". Zartakoak edozeini irakasteko

prest daude, eta hurbiltzen direnek ez dituzte edonolako irakasleak topatuko. "Dauzkagun hamalau bazkideetik bost Euskadiko txapeldunak dira. Dena esanda dago" dio Varonak irribarrea ahoan. Eurena baino talde handiagoak eta bazkide gehiago dituztenak badauden arren, gutxiak ei dituzte Zartak adina txapeldun. Hugo Sierrak fede ematen du denbora laburrean asko ikasi eta aurreratu daitekeela. 2016ko uztailean hartu zuen arku bat eskutan estreinakoz eta, hala ere, Euskadiko Txapelketa irabaztea lortu duten taldekideetako bat da. Gogoia jarriz gero, taldekideek duten mailarekin eta laguntzeko prestutasunarekin, asko aurreratu daitekeela nabarmendu du.

"Asko dakien jendea dago hemen, eta gainera gai dira geziak jaurtitzeari laga eta beste kide bati irakasteko edo aholkuak emateko. Zorte handia izan dut hona etortzeaz".

KIROL LASAIGARRIA

Lasaitasun handia ematen dien kirola dela nabarmendu dute Varonak zein Sierrak. "Ni oso urduria naiz eta beharrezkoak ditudan lasaitasun uneak lortzen ditut arku-tiraketan. Gezia jaurtitzeko uneak eskaini ahal diozun arreta guztia jartzea eskatzen du; gezia bere lekuan jarri, arku tenkatu eta jaurtitzeko mugimenduan kontzentratu. Une horretan ez da beste ezer existitzen, ez laneko arazorik, ez beste ezer ere. Geziaren unea da; soberan dago gainerakoa. Une horretara ailegatzen zeranean hasten gara sentazioez berba egiten. Ondo azaltzen ez dakigun arren, denok sentitzen dugu jaurti aurretik ere nahi dugun lekura zehatz mehatz joango dela gezia. Egunerokotasunetik ihes egiten laguntzen digu. Gero, pertsona bakoitza mundu bat da, eta bakoitzak kirolari eta kirolak bakoitzari gauza desberdinak ematen dizkio. Batzuk lehiakorragoak dira eta lehiaketak gogoko dituzte. Beste batzuek, aldiz, erlaxatzea bilatzen dute. Pertsonak adina motibazio daude, badakizula!". Sierrak lehiatzeari ere ikusten dizkio abantailak. Afizio bera duen jendea ezagutzea da horietako bat. "Norberarena baino teknika hobek ezagutzeak ikuspegia zabaltzen digu eta hori beti da aberasgarria. Denbora gutxi daramadan arren, lagun atseginak eta lasaiak besterik ez ditut ezagutu orain arte".



The Primitives antzerki musikal umoretsua eskainiko dute Yllanak eta Primal Bros-ek otsailaren 23an

Musikak eta umoreak hartuko dute Herriko Antzokia otsailaren 23 ganean (20:30). *The Primitives* ikuskizun musikatuan eskainiko dute Yllana antzerki taldeak eta Primal Bros-eko kideek elkarlanean.

Yllana eta Primal Bros artistak batu egin dira komedia musikal harrigarri eta dibertigarria egiteko. *A cappella* abestuko duten *The Primitives* obran tribu bati buruzko istorio bitxi surrealistak kontatuko dute. Doinu bitxiak ezezik kolore biziek ere jantziko dute antzezlanak.

Abesti entzutetsuak

Lurra izan daitekeen planeta bateko lau aborigen ikus-entzuleak konkistatzeko gertu azalduko dira, beren amets eta barne borroak baliatuz. Horretarako hamaika musika genero erabiliko dituzte: ospetsuak diren filmeetako soinu bandetako doinuak (*Mission: Impossible; Kill Bill; E.T.,...*), *Carmina Burana* eta *Sweet Dreams* obretako melodiak, zein *Game of Thrones* telesaileko musika taularatuko dituzte, besteak beste.

Abesti entzutetsuen bertsio bereziak umorez jantziko dituzte obrako lau protagonistek (Iñigo Garcia Sanchez, Pedro Herrero, Adri Soto eta Manu Pilas), Joe O'Curneenen zuzendaritzapean.

Ez da musikal batere ohikoa, beraz, ikus-entzuleei gogotsu, esperientzia berezia bizitzeko asmoz eta barre algarak egitera joateko gomendioa egin diete antzerkigileek.



Tribu bat irudikatuko dute lau antzezlek.

Antzerkirako sarrerak Kutxabanken edo lehiatilan erosi ahal izango dira 10 euroan (Gazte txartelarekin 7 euro).

Emakumeentzako hausnarketa tailerra izango da astelehenean

Elgoibarko Emakumeentzako Jabetze Eskolak hausnarketa tailer bat antolatuko du otsailaren 19rako. Elgoibarko Udalak, Berdintasun Sailaren bitartez egingo du *Neure buruarekin leial izatea hitz-maten dut* izeneko tailerra. Sarrera doakoa eta librekoa izango da, eta Kultur Etxeko hitzaldi gelan egingo dute 18:00etatik 20:00etara bitartean. Saioa Loredi Salegik zuzenduko du, eta gazteleraz izango da. Tailer honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, 943 741 050 telefono zenbakira deitu edo helbide honetara idatzi behar harko da: berdintasuna@elgoibar.eus

UEUko ikastaroetan parte hartzeko diru-laguntzak emango ditu Udalak

Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie UEUren udaberriko ikastaroetan parte hartzen duten elgoibartarrei. Matrikularen kostu osoa ordainduko die ikasleei, langabeei, pentsiodunei eta jubilatuei; eta erdia lanean dihardutenei. Ikastaro batzuk on-line bidez egin ahal izango dira eta besteak ikasgelan (Iruñean eta Eibarren). Ikastaroak www.ueu.eus atarian daude ikusgai. Diru-laguntzei buruzko informazioa lortu nahi dutenek Udalaren Euskara Sailera jo behar harko dute (Kultur Etxean), 943 744 366 zenbakira deitu edo helbide honetara idatzi: euskara@elgoibar.eus

Motxailak Bertsotan saiorako txartelak salgai ipini dituzte

Zerua motxailen aterpe izenpean Motxaila Eguna ospatuko dute Mendaronek aurki azken urteotako ohitura jarraituz. Martxoan barrena hainbat ekitaldi egingo dituzte, Motxailak Bertsotan saioa besteak beste. Maialen Olazabal gai-jartzailearen esanetan Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Andoni Egaña eta Jone Uria arituko dira bertsotan. Martxoaren 9an, ostirala, izango da bertso saioa, 22:00etan, San Agustin Kulturgunean. Bertso saiorako txartelak salgai ipini dituzte eta 5 euroren truke erosi ahal izango dira Txirristakan eta Morroskilon.

Nerea Sasiainek Gipuzkoako errekorra ondu du 400 metroko lasterketan

Nerea Sasiainek 57 segundo eta 43 ehunekotan eman zizkion bi itzuli Anoetako belodromoko pistari aurreko zapatuan. Denbora horrekin 400 metroko lasterketako Gipuzkoako errekorra ondu du, jubenil eta junior mailetako errekorra, hain zuzen ere. Sasiainek Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka lortua badauka ere, marka hori hobetzeko helburuarekin hartu zuen parte Donostiako proban, serietan kokapen hobea izateko. Bere asmoa ez zen Gipuzkoako errekorra ontzea, marka zein zen ere ez zekiela aitortu baitu. "Proba amaitu ostean federazioko norbait hurbildu zitzaidan errekorra egin nuela esatera. Ezustekoa izan zen, baina pozik nago". Sasoi puntuari eutsi eta Espainiako Txapelketan ahalik eta ondoen lehiatzea du helburu. Gipuzkoako txapelketan parte hartu ala ez zalantzan dago. "Entrenatzaileak atseden hartzea ondo etorriko zaidala esan diit eta nire esku laga du parte hartu ala ez erabakitzea. Euskadikoan badaukat lehiatzeko asmoa", esan du. As-teburu honetan jokatu da Gipuzkoako txapelketa eta otsailaren 24an eta 25ean Euskadikoa. Espainiako txapelketa, beriz, Malagako Antequera hirian jokatu da, martxoaren 10ean eta 11n. Martin Hernandez ere lehiatuko da han, gutxieneko marka lortu baitu.



Aste Santuko Kirol Campusean izena emateko epea martxoaren 16an amaituko da



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Aste Santuko Kirol Campusa antolatu du aurten ere, hamargarren urtez jarraian. Campusa martxoaren 26, 27 eta 28an eta apirilaren 3, 4, 5 eta 6an egingo da. Zazpi egun horietan, 9:30etik 12:30era bitartean, kirol desberdinak egiteko aukera izango dute partaideek. 2006 eta 2011 urte bitartean, biak barne, jaiotako haurrek parte hartu ahal izango dute kirol campusean. Interesatuek martxoaren 16a baino lehen eman beharko dute izena Olaizaga kiroldegian. Prezioari dagokionez, Patronatuko bazkideek 43 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, 48 euro.

Emaitzak

FUTBOLA

Elgoibar 3 – Eibar 1 (Oho. jub.)

Aretxabaleta 1 – Elgoibar 2 (Oho. kad)

ESKUBALOIA

Ereintza 30 – Alcorta F.G. 25 (Senior giz.)

Bera Bera 23 – Tecnifuelle Elg. 20 (Jub. nes.)

C.B.F. Eharialdea 12 – Arilan Elg. 26 (Kad. nes.)

Urkunde Elg. 19 – Urduliz 27 (Kad. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17

12:30 Elgoibar – Bergara (Oho. kad.)

17:00 Elgoibar – Zarautz (1. erreg.)

19:30 Elgoibar – Eibartarrak A (Kadete 1.maila)

Domeka, 18

12:00 Elgoibar – Danena (Oho. inf.)

16:00 Elgoibar Urdina – Bergara A (Ale.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 17

10:00 Zubacor Elg. – Eibar (Inf. mut.)

11:15 H. Txarriduna – Usurbil (Inf. mut.)

12:30 Modeltek – Eibar A (Inf. nes.)

17:45 Arilan Elg. – Aloña Mendi (Kad. nes.)

19:30 Alcorta F.G. – Gure Auzue (Sen. giz.)

Domeka, 18

11:30 Beristain – Leizaran (Jub. mut.)

10:00 Bankoa Elg. – Saieko (Kad. mut.)

13:00 Pneumax Elg. – Jauja (Inf. nes.)

Debatik Mutrikura oinez, domekan

Debabarreneko kostaldea ezagutzeko mendi irteera antolatu du Morraiko mendi taldeak Herri Eskolarekin eta Ikastolarekin elkarlanean. Domekan, otsailaren 18an, 9:20ko trenean joango dira Debara, eta handik, Kalbarioko ermitara igoko dira. Ikusmiraz gozatu eta Mutrikuko herrigunera jaitisiko dira gero. Mutrikutik Elgoibarrera autobus urbanoan itzultzeko asmoa dute, bazkalordurako etxean egoteko.

LANA.....
Eskaerak

Neska gaztea lanerako prest. Adinekoak zaintzen edo garbiketan. Erreferentzia asko. ☎ 688 712 075

Neska lanerako prest. Adinekoak edo umeak zaintzeko zein etxebizitza eta portalak garbitzeko prest. Ordutegi malgua. ☎ 658 273 486

Adinekoak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest, orduka eta interna moduan. ☎ 617 810 065

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai. ☎ 662 201 935

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai. ☎ 612 265 747

Etexko lanak egiteko eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Erreferentziak ditut. Interna aritzeko prestutasuna. ☎ 664 182 488

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka aritzeko gertu. ☎ 602 123 942

Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest, orduka. ☎ 632 621 940

Arratsaldeetan eta astebukaeretan pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 612 423 242

Orduka, gaez eta asteburuetan lan egiteko prest.

☎ 629 872 270

Orduka lan egiteko prest.

☎ 632 092 069

Gizonezkoa lan bila. Interno eta orduka aritzeko prest.

☎ 632 092 069

Interna moduan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentziak ditut.

☎ 631 910 861

Ospitalean pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan eta umeak zaintzen lan egiteko prest.

☎ 666 197 831

Arratsaldez pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 646 821 678

Esperientziadun mutila adin nagusiko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 686 077 316

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Fomakuntza eta esperientzia handia ditut. Gauak pasatzeko prest.

☎ 671 989 434

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. 10 urteko esperientzia eta geriatría laguntzaile titulua. Ospitaleetan eta interna aritzeko prest. ☎ 697 754 174

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan. ☎ 634 709 366

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest.

Orduka, asteburuetan zein gaez. (Vania Suarez).

☎ 632 229 972

Neska arduratsua adinekoak zaintzen edo etxe garbiketan lan egiteko prest.

☎ 632 877 170/631 919 766

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest. Egunez zein interno.

☎ 628 529 252

Neska prest adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako.

☎ 642 248 448

Haurrak edo pertsona nagusiak zaintzen, portalak garbitzen edo sukaldean laguntzen egingo nuke lan.

☎ 602 047 812

Eskaintzak

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Elgoibarko taberna batean lan egiteko. Esperientzia izatea beharrezkoa. Interesdunek bidali dezatela curriculuma e-posta helbide honetara: tabernalan@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....

Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut alokagai Elgoibarren. Urgente.

☎ 638 338 816

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 677 259 560

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 629 872 270

Etxea alokagai Santa Klaran. Bederatzi-garren solairu batean dago. Hiru logela, berogailu zentrala eta terraza handia ditu. 550 euro.

☎ 692 692 934

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokagai Arregitorren.

☎ 943 742 211

BESTELAKOAK.....

1988an jaiotako kinto bazkaria. Aurten 30 urte betetzen ditugun elgoibartarrok kinto-bazkaria egingo dugu maiatzaren 19an. E-mail bat bidali dugu azken egunetan informazio gehiagorekin. Mezu horren berri izan ez baduzu, jarri gurekin harremanetan elgoibar1988@gmail.com helbidera idatzita. Anima zaitetz!

Zapatuan, Inauterietako afarian, Gure Bide elkartearen emakume batek jantzigiti txanodun txamarra berde bat hartu eta txano gabeko beste bat utzi zuen. Trukea egin zuenari eskatu nahi diogu elkarteko norbaitekin kontaktuan jartzeko eta aldaketa egiteko.

Etxejabe batek, bizilagunen batzordean sartzen denean, hitz egiteko eta botoa emateko aukera izan dezake?

Nire ustez, bizilagun batek, batzarra hasita dagoenean sartuz gero, zerrendako gaietatik jadanik landuta daudenei buruzko bere iritzia eta botoa emateko aukera galduak izango ditu. Etxejaberaren bat batzarrera berandu iristeak ez du atzera eraginezko ondoriozko izango bileran dauden gainontzeko etxejabeek hartutako erabakietan, are gehiago bere botoak gehiengo baldintzatu eta bozkatutakoa aldatu badu. Kasu horretan legezkoa da landutako gaiak berriro irekitzeko uko egitea, beraz, etxejabe horrek ez du eskubiderik izango bozketa berriz egitea eskatzeko.

Egoera horretan aurreko gaien erabakien emaitzak jakintzat joko dira, beraz, ez zaio propio eman behar emaitza berri. Gainera akordioak inpugnatu ahal izango ditu, bere iritzia azaldu ez eta bozketan parte hartu ez duelako, eta bileran izan ez dela kontuan hartuko da.

Ondorioak: Bilerara iritsi eta oraindik eztabaidatu eta bozkatu gabeko zerrendako gaietan askatasunez parte hartzeko aukera izango du etxejabeak. Berandu izan arren bilerara bete-betean sartuko da, beraz, ez diote boto eskubidea mugatu edo ukatuko. Etxejaberaren batek bilera aurrera doan bitartean alde eginez gero, bileran zegoen bitartean emandako botoak baliozkoak izango dira, ez, ordea, joan ondoren hitz egindako gaietako buruzkoak joan egin dela kontuan hartuko baita.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioalarien Erakunde Komunitarioa



ROSA M^a
PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Miren**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien eta batez ere lker eta Aneren partetik. Ondo pasa eguna.




Zorionak, **Jare!** 4 muxu potolo etxeko denon partetik, bereziki, neba Oihan eta lehengusu Danel eta Izaroren partetik.



3 urtetxo jada! Mila kilo zorion, **Jakes!**



Zorionak, **Danel!** otsailaren 14an 3 urte bete zenituelako! Muxu handi bat familia-koen eta bereziki, Aimarren partetik.



Zorionak, **Helenka!** Igandean 6 urte potolo. Lagunekin eta familiarekin ospatuko dugu unikornio festan! Mundiala zara. Muxu asko.



Zorionak, **Roke**, mutil handi, 5 urte bete zenituelako asteartean. Familia guztia- ren partez, bereziki, Nora, Markel eta Lukaren partez.



Zorionak, **Ekhi!** Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Familiakoen partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com



VARILUX
MARCA PT MARQUE EN LENTES PROGRESSES

VARILUX
SOLUTIONS

VARILUX
DRIVE

VARILUX
SUN

VARILUX
DIGITAL

**BIGARREN LENTE
PAREA DOAN**

Makina erremintan diharduen DOIMAK S.A.
enpresa elgoibartarrak honako lanpostuak
betetzeko deialdia egin du:

Doimak

- ⊗ LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUTEN MUNTATZAILEAK BEHAR DIRA.
- ⊗ CNC FRESATZAILEA BEHAR DA.
(FAGOR CNC EZAGUTZAK IZATEA BALORATUKO DA)

Interesdunak bidali zuen curriculumak cblanco@doimak.es helbide elektronikora edo 943 740 988 (Claudio) telefonora deitu

16 BARIXAKUA

21:30 Bideo foruma: *Cincuenta sombras de grey*. Loredi Salegik gidatua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

17 ZAPATUA

10:00-13:00 Xaboi eta kandela tailerra familian (Kiribil egitasmoa). Atxutxia- maikako lokalean (Merkatu plazako 2. solairuan).

18 DOMEKA

9:20 Mendi irteera: Debatik Mutrikura. Trenz Debara, Kalbarioko ermitara igo eta Mutrikura jaitsi. Elgoibarrera buelta autobusez (elkartzen den lagun kopurua- ren arabera, ibilaldia Deban bukatuko da autobusaren eserlekuak mugatuak baitira. Luzera: 8,5 km. Desnibela: 250 m. Hitzordua: Elgoibarko tren geltokian Umeak guraso edo arduradun batekin. Antolatzaileak: Morkaiko Mendizale El- karteak eta Herri Eskola eta Ikastolako gu- rasoak.

19 ASTELEHENA

18:00-20:00 Emakumeentzako haus- narketa tailerra: *Neure buruarekin leial izatea hitzematen dut*. Hizlaria: Loredi Salegi. Sarrera doakoa eta librea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzaileak: El- goibarko Emakumeentzako Jabetze Es- kola. Elgoibarko Udala, Berdintasun Sailaren bitartez.

21 BARIXAKUA

20:30 Antzerkia: *The Primitives*. Bros & Yllana. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko antzokian)

'Tres anuncios en las afueras'


16 Barixakua, 21:30
17 Zapatua, 19:00/22:15 (VOS)
18 Domeka, 19:00
19 Astelehena, 21:30
(Ikusleen eguna)

'Sola en casa'

18 Domeka, 16:30

'Una mujer fantástica'

(Ongarri Zine Kluba)
22 Eguena, 21:30



Maria Luisa Suinaga Azcarate Ascasua

2018ko otsailaren 10ean hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA Jesusa Barinagarrementeria Gandiaga

2017ko otsailaren 16an hil zen, 89 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 17, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

Akondia Baserrria



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
16 BARIXAKUA	17 ZAPATUA	18 DOMEKA	19 ASTELEHENA	20 MARTITZENA	21 EGUAZTENA	22 EGUENA	23 BARIXAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

*** Fernandez:**
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Urtarrilean hildakoak

<ul style="list-style-type: none"> • Jesusa Arrillaga Larrañaga 82 urte, urtarrilak 2 • Manuel Mateo Jimenez 85 urte, urtarrilak 2 • Facet Mancebo Navarro 84 urte, urtarrilak 2 • Hilaria Larruskain Madariaga 82 urte, urtarrilak 3 	<ul style="list-style-type: none"> • Damiana Garate Olañeta 99 urte, urtarrilak 7 • Justa Muñoz Gustin 92 urte, urtarrilak 10 • Margarita Oregi Osoro 94 urte, urtarrilak 10 • Ines Mendikute Muguruza 88 urte, urtarrilak 10 	<ul style="list-style-type: none"> • Pedro Maria Esnaola Irusta 88 urte, urtarrilak 16 • Felisa Bergaretxe Ardanza 102 urte, urtarrilak 19 • Pascuala Del Rey Nova 80 urte, urtarrilak 28 • Mari Tere Unzueta Etxaniz 91 urte, urtarrilak 29
---	---	--



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Julen Ansola



Irati Agirreazaldegi



Orri zuri bat mahai gainean eta, zuria nagusi den argazkia ordenagailu pantailatik kendu ezinean. Papelean zer idatzi, irudiak buruan sortzen didana kanporatzen asmatzen ez dudanean? Mendiko elur zuriari buruz hitz egin behar al dut azkenean?

Egunotako eguraldi txarrari leihotik begira, nire hitzak bere zurian haserrearen beltzez aterako ote dira? Eguraldi ona eta txarra bereizteko errazak balira... Baina zein da ona, elurraren zuriarena edo zeruaren urdinaren dizdira?

Euria eta elurra, neguan gorputzeko epelaren lapurra. Eguzkiaren beroa eta lainorik eza batzuentzat ona dela egia, eta beste batzuentzat, gezurra. Bat edo bestea aukeratzeak ematen digu beldurra. Eguraldia edozein dela ere, temperatura eta bide asko izaten dira mendi gailurrera igotzeko, baina harrapatuko al du sekula gure gustuen gailurra?

Elur malutak hasterako pizten dira alarmak. Badirudi horiek direla albistegiak eta egunkarietako horri mordoa betetzeko baliatzen diren armak. Batzuk ikaritzen dituelako errepideetako izotzaren edo kateen aztarnak eta besteak goxatu elur zuriaren xarmak.

Eguraldiak sarritan betetzen ditu igogailuko elkarrizketak eta uxatu bestelako berriketak. Hotz eta beroak aztinduarazten digu mingaina eta arindu buruko ariketak.

Zeruko urdinean urdin eta lurreko zurian zuri, alperrik da ona edo txarra zein den esatea, bata edo bestea entzun nahi dizuna zuri.

Azala zuria duenak barrena beltza. Hobe dugu eguraldia tokatzen dena tokatuko dela pentsa, eta batzutan izango dugu burua argi, eta hurrengoan, laineza.

"Eguraldiak sarritan betetzen ditu igogailuko elkarrizketak eta uxatu bestelako berriketak"



Felisa Bergaretxe Ardanza

2018ko urtarrilaren 19an hil zen, 102 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere

*Zure maitasuna,
eskuzabaltasuna eta alaitasuna hain handiak izan direlako,
beti egongo zara gure oroimenean eta bihotzean.
Izan zarenagatik,
erakutsi diguzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



IV. URTEURRENA

Amaia Arrizabalaga Arakistain

*Hitez ezin da esan, Amaia
zuk eman zenigun dena.
Familia bat sortu zenuen
ederretan ederrena,
izan zenuen momentu orok
eskatzen zuen kemena
gaur egun zure seme-alaben
jarretan isla dena.*

*Zu gabe guztiz aldatu zenez
gure bizien ordena,
esan liteke egin dugula
nolabaiteko lorpena.
Izan ere, denok eman dugu
jada pausurik gaitzena:
oroimenean zaitugu lehen
oroiminean zinena.*

Etxekoak

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.
Haren omenez IV. urteurreneko meza izango da, domekan,
otsailak 18, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.



IV. URTEURRENA

Bittor Alberdi Elorza

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

*Begiak itxi eta zurekin bizi izan ditugun
momentu guztiak oroitzen
orain gertatzen ari balitzaigu bezala
dena imajinatzen.
Begiak zabaldu eta berriz ere faltan
zaitugu botatzen,
baina begiak itxita edo zabalik,
beti zutaz harro eta maitatzen.*

Etxekoak





ROSA M^a PINTADO
Etxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net

Bulego kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Nolaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioileen
Lurralde Kontseilua

DERRIGORREZKO
KOLEGIATZEA

BAI!
MILA ESKER